


Garraibide iraunkorrek egunero erabiltzen dituzten EAEko gazteen kopuruak gora egin du

Egunero modu iraunkorrean mugitzen diren gazte gehien dituen lurraldea Gipuzkoa da.

Irailaren 16tik 22ra bitartean [Mugikortasunaren Europar Astea](#) dela-eta, garraibide iraunkorrek erabiltzen dituzten EAEko gazteei buruzko datu batzuk aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


Datuak Gazteen Euskal Behatokiak berak 2012an 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta batetik aterata daude. Inkestan, bizikletaz eta garraibide publikoetan egiten dituzten joan-etorriei buruz galdetu zitzairen, besteak beste.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 10ek bizikleta erabiltzen dute egunero edo ia egunero euren joan-etorrietan. Ehuneko hori bikoiztu egin da azken urteotan: [2004](#)ko eta [2008](#)ko % 5etik 2012ko % 10era igaro da.



Mutilek neskek baino maiztasun handiagoz erabiltzen dute bizikleta. Mutilen % 13 bizikletaz mugitzen dira egunero; nesken artean, % 6 dira horrela mugitzen direnak.


Hala ere, kolektiboen artean dagoen alderik handiena bizilekuan datza: Araban eta Gipuzkoan, gazte gehiagok erabiltzen dute bizikleta egunero (% 17k eta % 18k, hurrenez hurren), Bizkaian baino (% 2k).



Bestalde, EAEko gazteen % 37k egunero hautatzen dituzte garraibide publiko kolektiboak euren nondik norakoak egiteko.

Garraibide publiko kolektiboak egunero erabiltzen dituzten gazteen ehunekoak gora egin du 2008tik hona, orduan % 33koa baitzen.

Egunero autoa erabiltzeko joerak, aldiz, beherakada jasan du gazteen artean: 2008an % 32k erabiltzen zuten eta, 2012an, ordea, % 27k. Horrenbestez, garraibide publiko kolektiboak ala autoa egunero erabiltzen dituzten gazteen ehunekoak alderatuz gero, zera konprobatuko dugu: 2008an biak nahiko antzekoak baziren ere, 2012an gehiago direla garraibide publiko kolektiboetan egunero mugitzen diren gazteak (% 37) autoz ibiltzen direnak baino (% 27).




Egunero edo ia egunero garraibide publiko kolektiboak erabiltzen dituztenen ehunekoa handiagoa da nesken artean, mutilen artean baino: % 42 eta % 33, hurrenez hurren.

25 urtera artekoek 25 eta 29 urte bitartekoek baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte egunero garraibide publikoak: % 42k 15 eta 19 urte bitartekoen artean eta % 43k 20 eta 24 urte bitartekoen artean; 25 eta 29 urte bitartekoen artean, aldiz, % 30ek erabiltzen dituzte garraibide mota horiek.

Gazteak bizi diren udalerrriaren neurriak ez du eraginik garraiobide publiko kolektiboan erabilera handiago edo txikiagoan (10.000 biztanletik beherako udalerrrietako gazteen % 36k erabiltzen dituzte eta hiriburuetako % 38k).

Datuak lurralde historikoen arabera aztertuta, ordea, alde nabarmenak daude garraiobide publiko kolektiboak egunero erabiltzen dituzten gazteen ehunekoetan. Bizkaia da ehunekorik garaiena duena (% 44). Jarraian, Gipuzkoa dator (% 33) eta, azkenik, Araba (% 22).



Garraiobide iraunkorrak egunero erabiltzen dituzten gazteen ehunekoak elkarri gehitzen badizkiegu (bizikleta gehi garraiobide publiko kolektiboak), % 39 dira Araban, % 46 Bizkaian eta % 51 Gipuzkoan.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

